

INFORMAZIOA KARGATZEKO JARRAIBIDEAK, ENPLEGU-ZENTROEN 20017KO DEIALDIAREN ERABILTZAILEEN ERABILERA-DENBOREI ETA IDENTIFIKAZIOARI BURUZ - .5.3 b) iv. artikulua

- GARRANTZITSUA:** Enplegu-zentroan pertsonak sartu aurretik, Lanbideren identifikatzailearekin erregistratu behar ditu orientatzaileak/dinamizatzaileak, haien lana errazteko. Ez da nahikoa tresnak izen-abizenak erregistratzea; horretaz gain, gomendatzen da aplikazioan erregistratzea pertsonaren dokumentu-mota (NANa, IFZ, etab.).
- Enplegu-zentroan instalatu dituzten aplikazioaren/euskarriaren denborak lortzea, berrikuspenak jaso baititzakete dena zuzena dela kontrolatzeko.
- Denbora horiek Exceleko txantilo batean sartu beharko dira, zeina Lanbidek enplegu-zentroaren eskura jarriko baitu; hortaz, ezin izango da formatua aldatu. Aplikaziotik deskarga dezakete txantiloia eta formatu hau izango du:

	A	B	C	D	E
1	identificador_usuario	identificador_demandante	fecha_realizacion	numero_minutos	texto_descripcion
2	D11111111A	D22222222A	20/05/2016	30	Descripción del servicio 150 caracteres
3					
4					

Erabiltzailearen identifikazioa eskatzailearen identifikazioa eguna minutuen kopurua testu deskribapena

ERABILTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA / ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA:

Identifikatzailea eduki behar dute ENPLEGU-ZENTROAREN zerbitzuak erabiltzen dituen ORIENTATZAILEA/ORIENTATUAREN Lanbideren aplikazioek (DARDen* dagoen dokumentu-mota eta -zenbakia, orientatuaren kasuan, eskaera inskribatzean edo berritzean emango zaiona)

XXXXXXXXYZ formatua

Non:

X: dokumentu-mota (D: NANa; E: AIZ; U: Europar Batasuna; W: Lanbideren identifikatzailea gainerakoetan)

(Oharra: D NANari dagokio; E AIZri; U eta W identifikatzaile konbentzionalak dira, bat ez datozenak identifikazio-dokumentuekin)

YYYYYYYY: 8 karaktere alfanumeriko. Dokumentu-mota E bada, hizki bat da beti lehen kokagunea eta gainerakoa zenbakizkoa. Gainerako moten kasuan, 8 zenbaki.

Z: Kontroleko hizkia

Zenbakizko karaktere-kopurua 8 baino txikiagoa bada (edo 7, E motarako), zeroekin beteko da lehen zenbakitik ezkerrera.

Adibideak:

NANa: 45133L→D00045133L

AIZ: EX45133L →EX0045133L

Eskaerari alta emateko eta berritzeko dokumentua

Hasierako eta amaierako data:

Bat etorri behar dute. Bertaratu den eguna da. Ez da biltegitatu behar data gisa, Excelen testu gisa baizik.

Formatu honi jarraitu behar zaio: EE/HH/UUUU

Non

EE: eguna (1. eguna bada, 01 jarri behar da)

HH: hilabetea (1. hilabetea bada, 01 jarri behar da)

AAAA: urtea (4 digituak bete behar dira)

Minutuen kopurua

Pertsonaren saioaren iraupena. 3 orduz baino gehiago luzatzen bada abisatuko du (180 minutu) eta ez ditu inoiz 8 ordu baino gehiago emango (480 minutu)

Horregatik, zenbakizko 3 kokagune baino ez ditu onartuko gelaxkak.

Testua

Oharrik sartu nahi bada. Gehienez 150 karaktere.

4. Aldi osoaren informazioarekin Excela bete eta gero (hasierako aldia = aste bat), enplegu-zentroak berak kargatu beharko du Lanbideren aplikazioan, geroago tratatu ahal izateko. Excela kargatzerakoan, edukiaren lehen balidazioa egingo du aplikazioak, zeinak informazioaren aurreprozesatu horretan aurkituko dituen akatsen berri emango baitu:

- ERABILTZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA: Balidatuko du informazio horrek baimenak dituela aplikaziora sartzeko.
- ESKATZAILEAREN IDENTIFIKAZIOA: Balidatuko du eskatzailea Lanbiden eskatzaile gisa inskribatuta dagoela.
- Daten formatua zuzena eta zentzuduna izatea (adibidez, ez onartzea otsailaren 30a)
- Iraupena minututan zenbatzea (gehienez 8 orduko murrizketa egongo da egun batean eta 3 ordutik gorako balioen berri emango da, balioa baimentzen bada ere.
- Deskribapenak, gehienez, 150 karaktere edukitzea (ohartaraziko da murriztuko dela onartuz gero)
- Balidatuko du ez zaiola bi aldiz ematen zerbitzu bat, egun berean, pertsona bati, Excelen errepikatuta dagoelako edo Excel zahar batean kargatu zelako lehenago.
- Ez dago daturik gabeko zutaberi Excelen.

Balidatu eta gero, pantailan agertuko da akatsik dagoen eta orientatzaileari galdetuko zaio egin beharreko hurrengo ekintzaz:

- Berriz ere kargatzea akatsak konpontzeko.
- Jarraitu eta kargatu.

Beharrezko balidazioen gaineko akatsei eutsiz gero, ez da baimenduko jarraitzeko aukera eta pantailan erakutsiko dira zutabea eta akatsa bera.

5. Dena zuzena bada, informazio osoa kargatuko da datu-basearen taula batean; eta pantailan mezu bat adieraziko da formatu horretan kargatutako Exceleko zutabe bakoitzeko.

“Zuzen kargatu dira Excel fitxategian adierazitako XX zerbitzuak. Automatikoki prozesatuko dira laster.